



" SORMEN ARTISTIKOKO PROIEKTUEN LEHIAKETA 2018 "

Iruñeko Udalak " SORMEN ARTISTIKOKO PROIEKTUEN LEHIAKETA 2018" deitzen du, norgehiagokako araubidean, Iruñeko Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak (2006ko 21. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, otsailaren 17koan, argitaratua) xedatzen duenarekin bat.

1.- XEDEA.-

SORMEN ARTISTIKOKO PROIEKTUEN LEHIAKETA 2018: Lehiaketaren xedea da sormen-jarduera sustatzea, horretarako laguntza emanda honako esparru hauetan garatutako sormen-proiektuei: arte eszeniko eta plastikoak, musika, literatura, ikus-entzunezkoak eta kulturako beste adierazpen artistiko batzuk.

Halaber, xede du Iruñeko ekimen artistikoak sustatzea eta aipatutako arte-diziplina guztietako proiektuak bultzatzea, horiek garatu eta gauzatzeko, horretarako sari ekonomikoak emanen direlarik sormen faserako.

2.- SARI-MODALITATEAK.-

Hona hemen sari-modalitateak:

10 sari banatuko dira parte-hartzaile guztien artean.

3.- DIRU-ZUZKIDURA.-

Deialdi honi, gehienez ere, 30.000 euro esleituko zaizkio sarietarako, Udalaren Aurrekontuko honako partida hauen kargura:
50/33401/480000

Sari hauek ezarri dira modalitate bakoitzerako, 2. klausulan jasotakoarekin bat:

3.000 euroko 10 sari, proiektuen balorazioan puntuaziorik altuena lortzen duten proiektuendako, lehiaketa honetako 6. klausulan adierazitakoarekin bat.

Horietatik 3.000 euroko hiru sari erreserbatuko dira proiektuak aurkezten dituzten 35 urtetik beherako sortzaileendako.

Halaber, sari bat egonen da euskarazko lan garaikide bat sortzeko, hori txertatu ahal izateko *Garaikide* udal-programan.

Gazteria eta euskararen sari horiek merezi duenik ez bada, lehiakide guztien artean banatuko dira.

Sariei esleitutako diru-kopuruei dagokien atxikipena aplikatuko zaie, PFEZ dela medio.

4.- HAUTAGAIEN BETEKIZUNAK.-

Lehiaketan honako betekizun hauek betetzen dituzten PERTSONA FISIKOEK hartzen ahalko dute parte:



- Iruñean erroldatuta izatea proiektua aurkezten den datan, eta gutxienez urtebete jarraituko antzintasunarekin.

Pertsona fisikoak banakako proiektu batekin aurkezten ahalko dira, edo talde-proiektu baten partaide gisa. Azken kasu honetan, saria taldekide guztien artean hainbanatuko da. Hala ez izatekotan, banaketaren proportzioak jakinarazi beharko dira (portzentaje guztien batura 100 izan beharko da).

Parte-hartzaile bakoitzak proiektu bakarra aurkezten ahalko du edo proiektu bakarrean parte-hartu.

Sormen-proiektuek originalak izan behar dute, eta 2018. urtea amaitu aurretik amaitu beharko dira (horrek ez du ekartzen gauzatu edo ekoiztu behar direnik).

Sormen-proiektuak honako alor hauetakoak (baina ez bakarrik) izan ahalko dira:

Aste eszenikoak.

Testu dramatikoak sortzea, obra koreografikoak, performanceak, ezohiko lekuetan egindako esku-hartzeak.

Arte plastikoak

Honako espezialitate hauetako sormen-lanak: marrazkia, pintura, grabatua, eskultura, instalazioak, argazkilaritza, argazkilaritza-saiakerak, horma-irudiak, arte hiritarra eta performanceak.

Musika arteak

Edozein musika-generotako obren sormen- eta konposizio-lanak.

Literatur arteak

Edozein literatur generoko sormen-lanak (ipua, poesia, eleberria, haur literatura zein saiakera).

Ikus-entzunezko arteak

Gidoiak eta sormen-proiektuak sortzea, ikus-entzunezko obrak, dokumentalak eta fikzio zein animazio lanak egiteko.

Ezin izanen dira aurkeztu Udaleko beste deialdiren batean diruz lagundutako proiektuak.

Iruñeko Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10. artikuluan xedatutakoarekin bat, laguntza hauen izaera berezia dela-eta onuradunei aplikagarri zaie arau horretan ezarritako debekua:
BAI EZ

5.- ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHAR DIREN AGIRIAK, ZEIN EPETAN ETA NON.-

Aurkeztu beharreko agiriak:

- Sortzaile guztien NANA.
- Sormen-proiektua.
- Artistaren edo artisten ibilbide profesionala.
- Obra argitaratzeko, ekoizteko edo jendaurrean erakusteko plana.

Lanak honako helbide honetara bidali behar dira:

Iruñeko Udaleko Erregistro Orokorra (Kondestablearen jauregia - Kale Nagusia 2, behe), erregistro osagarriak (Descalzos k. 72, 2. solairua; Iratxeko Monasterioaren k. 2, behe; Armada etorbidea 2, 5. solairua; Zapatería k. 40, behe; Eslava k. 1, behe) edo, bestela, Administrazio Publikoen Administrazio



Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako beste edozein.

Halaber, beste edozein bide erabiltzen ahalko da lanak aurkezteko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua aurreikusten dituen artean.

Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izanen da, deialdi honen laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aitzina. Hortaz, eskabideak aurkezteko epea oinarri hauek NAOn zein egunetan argitaratu eta hurrengo hilabeteko zenbaki bereko egun horretan amaituko da, salbu eta egun hori baliogabea bada, halako kasuetan, hurrengo egun baliodunean amaituko baita epea. Muga-eguneko hilean ez bada hasierako egunaren baliokiderik, epea hilaren azken egunean bukatzen dela joko da.

Aipatutako epetik at aurkeztutako eskabideak ez dira onartuko.

Saririk jasotzen ez duten lanak Udalaren bulegoetan berreskuratu ahal izanen dira, ebazpena argitaratu eta bi hilabeteko epean. Epe hori igarota, Udalak suntsitu egin ahalko ditu jaso ez diren lanak, betiere ebazpenaren kontrako errekurtsorik aurkeztu ez bada.

6.- EPAIMAHAIA.-

Epaimahaia Iruñeko Udalak izendatuko du, eta honako hauek osatuko dute:

- Epaimahaiburua: Kultura eta Hezkuntzako Alorreko zuzendaria.
- Epaimahaikideak:
Kultura eta Hezkuntzako Alorreko hiru teknikari.
- Idazkaria: Kultura eta Hezkuntzako Alorreko administraria.

Epaimahaiak honako irizpideekin bat baloratuko ditu aurkeztutako proiektuak:

1. Aurkeztutako proiektuaren interes artistiko eta kulturala (gehienez ere 9 puntu).
2. Artistaren edo artisten ibilbide profesionala (4 puntu bitarte). Kontuan hartuko dira azkeneko urteetan egindako sormen-lanak .
3. Proiektua lurraldean duen inpaktua (2 puntu bitarte).

Berdinketarik izanez gero, 35 urtetik beherako sortzaileen proiektuak lehenetsiko dira.

Ezein kasutan ez dute saririk jasoko 1. atalaren balorazioan (proiektuaren interes artistiko eta kulturala) 5 puntu baino gutxiago jasotzen dituzten proiektuek.

Lehiaketaren azken edizioiko irabazleek ezin izanen dute saririk jaso.

Saria emateko proposamena organo eskudunari aurkeztuko zaio, hau da, Kultura eta Hezkuntzako zinegotzi ordezkariari, horrek proposamenaren gainean ebatz dezan. Modalitate guztietan, edozein sari eman gabe utzi ahal izanen da, baldin eta epaimahaiaren iritziz ezein lanek ez badu behar adinako meriturik edo kalitaterik.

Epaimahaiak accesiten bat proposatzeko aukera: BAI EZ

7. DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA.-



Jasotako izaera pertsonaleko datuak babestuko dira, Izaera Pertsonaleko Datuak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta hori garatzen duen Erregelamendua onetsi zuen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuan xedatutakoarekin bat. Aipatu Lege Organikoan xedatutakoa betez, deialdi honetan jasotako datu pertsonalak sari hau kudeatzeko baino ez dira erabiliko, eta Iruñeko Udalaren datu-basea osatzen duten fitxategietan bildu ahalko dira. Hain zuzen ere, Iruñeko Udalari zuzenduta gauzatzen ahalko da datuetan sartu, datuak zuzendu, ezereztu eta haien kontra egiteko eskubidea, Erregistro Orokorrera joaz. Lehiaketa hau egin bitartean jasotako irudirik erabiltzeko, beharrezkoa izanen da interesdunek alde aurretik baimena sinatzea.

8.- EBAZTEKO ETA JAKINARAZTEKO EPEA.-

Ebatzi eta jakinarazteko epea sei hilabetekoa izanen da, gehienez ere. Epea deialdi honen laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hortik aitzina hasiko da kontatzen.

Instrukzio-organoa lehiaketa hau kudeatzen duen Alorreko Idazkaritza Teknikoa izanen da.

Sariak emateko ebazpenak amaiera emanen dio administrazio-bideari, eta eskatzaileei jakinaraziko zaie, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legean aurreikusitakoarekin bat.

Diru-laguntzak emateko ebazpena argitaratzeko beharra: BAI EZ

Baiezkoa bada, non argitaratu:

Nafarroako Aldizkari Ofiziala.

Iruñeko Udaleko Egoitza Elektronikoa.

Diru-laguntzen datu-base nazionalari jakinarazi, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 20. artikularekin bat.

Behin lehiaketa ebatzi eta gero irabazleei jakinaraziko zaie, zeinek onarpena bidali beharko baitute, hamar eguneko epean, jakinarazpena jasotzen dutenetik. Epe hori igarota, saria ez onartutzat joko da. Sariari uko eginez gero, hobekien baloratutako hurrengo proiektuari emanen zaio.

9 - KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE BATZUK.-

Jabetza eskubideak

Lehiaketa honetan parte-hartzeak berekin dakar parte-hartzailearen zinpeko aitortpena, non proiektuaren egile legitimoa dela baieztatuko baitu.

Parte-hartzaileak aitortzen du berariazko baimena duela eta beharrezko eskubide guztiak dituela obra erabili, erakutsi, publikoki egin zein egokitzeko, eta horrela bermatuko da Iruñeko Udalak kalterik ez edukitzea hirugarrenek egin ditzaketen erreklamazioen aurrean.

Irudi-eskubideak

Lehiaketa honetan parte hartzeagatik, parte-hartzaileek onespina ematen dute, irabazle izatekotan, haien izena eta proiektuaren izenburua eta sinopsia hedatzeko, Iruñeko Udalak edo horrek baimendutako beste erakunde batek ezartzen duen edozein modu, leku, formatu, euskarri zein bitartekotan, zehaztugabeko denboran, eta bazter geratuko da helburu komertzialak dituen beste edozein erabilpen.

Jabetza intelektualeko eskubideak eta erreprodukziorako baldintzak

Parte-hartzaileek sortutako obraren gaineko jabetza intelektualeko eta erreprodukziorako eskubide guztiak gordeko dituzte indarrean den legediarekin bat.



Baldin eta proiektuaren hedapena jendaurrean egiten bada edota erakusten bada, Iruñeko Udalak emandako laguntza aipatu beharko da.

Irabazle bakoitzari 3.000 euro emanen zaizkio, hala banatuta:

- 1. ordainketa, 1.500 eurokoa, saria onartzean.
- 2. ordainketa, 1.500 eurokoa, sormen-proiektua erabat garatuta aurkezten denean. Saritutako proiektuan aurreikusitako edukien garapen osoa jaso beharko du, hasieratik amaiera arte, barne hartuta material guztia, argazkiak, bideoak, etab.

Proiektu hautatuek laguntza eta aholkularitza jaso ahalko dute Kultura eta Hezkuntzako Alorreko teknikarien partetik proposamena garatzeko.

Irailan proiektuaren jarraipena egiteko bilera bat egingen da, Kultura eta Hezkuntzako Alorreko teknikariek.

Behar izanez gero, proiektuek erabili ahalko dituzte Huarte Arte Garaikideko Zentroko guneak eta baliabide teknikoak, zentroaren egoitza edo egonaldi artistikoen barruan baliabide horiek erabiltzeko aukera ematen den baldintza berberetan.

10.- ERREKURTSOAK.-

Lehiaketan parte hartzeak berekin dakar parte-hartzaileek oinarriak onartu eta haiei men egitea.

Lehiaketa honen garapenaren eta oinarri hauen interpretazioaren inguruko gatazka oro organo emaileak ebatziko du.

Deialdi honen, oinarri hauen eta haiek betearazteko har daitezkeen administrazio-ebazpenen aurka errekurtsio hauek paratzen ahalko dira, aukeran:

- Berraztertze errekurtsioa, administrazio-egintzaren egile den udal-organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo, bestela, argitara eman eta biharamunetik aitzina.
- Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hortik aitzina.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuko da.